

## **BALIOZKO PROPOSAMENA**

Jaladame enpresa, gizartean dagoen gabezia bat betetzeko nahiarekin sortu da. Pandemia hontan argi geratu da osasun fisikoaz gain osasun emozionala zein garrantzitsua den, eta haurrek beraien emozioak ezagutu, identifikatu eta kudeatzeko aukerak eta ezagutzak eskaintzea da gure nahia. Haurrez gain, familiak ere askotan ez dute jakiten zer egin haur bat triste, urduri, haserre, beldurtuta... dagoenean. Guk haurren ongizaterako tresnak eskeini nahi dizkiegu familia eta hurrei.

Gaur egun eskoletan emozioei gero eta garrantzia gehiago ematen zaie, hala ere, hezitzaileak ez daude guztiz prestatuta honi aurre egiteko, eta horretaz gain, eskola curriculum-ak emozioei ez die tarte gehiegi eskeintzen.

Hori dela eta, arazo honi aurre egiteko talde balioanitza elkartu gara; adimen emozionalean aditua, psikologian jakituna, haur eta lehen hezkuntzako gradua eta psikopedagogiako masterra duten pertsonen osatuta dago. Guztion artean, haur eta/edo familiari tresnak eskeintzeko aukera izango dugu. Badakigu guztiok desberdinak garela, eta hori oinarri izanda, bezero bakoitzaren beharrak identifikatuko ditugu, plan pertsonalizatuak eskeiniz.

<b>Meibh López</b>	<b>Danele Pérez</b>	<b>Laura Quero Jaione Arzuaga</b>
Psikologian aditua	Psikopedagoga	Adimen Emozionala masterra Haur eta Lehen hezkuntzako gradua
Informatikan trebea	Psikomotrizitate ikastaroa	Marketing eta administrazio goi mailako zikloa Jendearekin harremanak sortzeko habilezia

Osatzen dugun profesional taldeak plan pertsonalizatu bat sortzeko tresna eta jakintza ugari ditugunez, ikuspuntu desberdinetatik helduko diogu arazoari. Lehenengo gurasoekin bilera bat egingo dugu gure zerbitzuen beharren arrazoia jakiteko. Ondoren haurrarekin egongo gara, saioa psikologoa den Meibhek gidatuko

STAT innova  
Jaladame taldea

du. Haurra bakarrik edo familiarekin egongo da, haurarentzat egokitutako gela batetan. Laura, adimen emozionalean aditua, ere bertan egongo da.

Saioa bukatzean, bi profesionalen artean haurrak dituen behar eta hutsuneak identifikatuko dituzte. Batzuetan haurra saioetan gurekin bakarka egotea ere beharrezkoa ikusten dugu, gurasoek haurrengan ez eragiteko. Horretarako, Haur Hezkuntzako gradua duen Jaione dugu, haurarentzat erreferentzia izatea da gure asmoa, haurra gurekin lasai geratzeko beharra dugunean.

Beharrezkoa ikusten badugu, familiarekin ere egingo ditugu saioak haurra bertan ez dagoela, esan bezala bakoitzaren beharren arabera saioak izango dira.

Guztion artean plan pertsonalizatu bat sortuko dugu, eta hor  
Danelek, psikopedagogo izanik, bere jakintzak eskiniko ditu beste guztiekin batera.

Honetaz gain, beste zerbitzu bat ere eskeiniko dugu: taldekako saioak. Jolas eta esku-lanen bitartez, haur talde bati emozioen inguruko jakintzak emango dizkiegu. 5-6 hurrez osatutako taldeak izango dira gehienez. Bertan emozio guztiak landuko ditugu. Plan bat prestatuta izango dugu saio horietarako, hala ere hurrek lantzeko duten emozioaren arabera izango dira, haurren eguneko emozioak aprobetxatuz ere gidatuko dira sesioak.

Prezioari dagokionez, saio bakoitza 40 eurokoa izango da. Hala ere eskaintza bereziak ditugu familia bereko bigarren haurarentzat, familia ugariarentzat edota langabezia duen familientzat. Kasu hauetan, bigarren hauraren saioak 35 eurokoak izango dira; familia ugarien kasuan, %20ko deskontua izango dute;

langabezian dauden familientzat berriz, %30eko deskontua. Taldeko saioak aldiz, 20 eurokoak haur bakoitzeko izango dira. Taldeko saioetan, familia ugari nahiz langabetuentzat %20koa izango da deskontua.